




“Krisialdiari
aurre hartzeko
klase politikoak
badu zer ikasia
kooperatiben
eredutik”

AGUSTIN MARKAIDE

EROSKI TALDEKO PRESIDENTEA

ziurtagiriaren elkarteak



baieuskarari.org

8. alea
2012ko maiatza



Rober Gutiérrez
Zuzendaria

@robergutierrez

¡BEN FET, PEP!

Pep Guardiola ez da Barçaren entrenatzailea izango datorren denboraldian. Honezkero izango zenuten horren berri. Bere erabakia azaltzeko prentsaurrekoa eskaini zuen, katalanez, eta mundu osoko kazetariak eta zaleak berari adi egon ziren. Mundu osokoak! Neuk ere ikusi nuen, nahiz eta futbolzalea ez izan.

Une hartan, hemengo kirolariak imajinatu nituen egoera berean... eta hemengo ordezkari politikoak eta sindikalak, enpresa munduko buruzagiak... eta neure burua ere imajinatu nuen egoera horretan, oso ohikoa izaten baita gure artean hizkuntza mendekotasuna praktikatzea, alegia, erdarara aldatzea solaskidea euskal hiztuna ez denean, edo euskal hiztuna ez dela suposatzen dugunean, gatazkatsuak izan litezkeen egoerak saihestu nahian. Baina Pep Guardiolak katalanez egin zituen bere adierazpenak eta, esan zituenak ulertzeko interesa zutenek, ulertzeko modua egin zuten...

Espazioak irabazten ari gara eta horretarako gure portaerak, hizkuntzarekin leialak izateak, eragin nabarmena du. Euskaraz aritzen diren pertsona eleanitzen eredia beharrezkoa da; hauekin batera, hizkuntzaren ezagutza txikiagoa dutenek lagungarriak diren urratsak eman behar dituzte, hala jarrerari nola erabilerari dagozkionak.

Jauzi kualitatiboa lortu nahi izatera, aurrerapausoak eman behar ditugu, jarrera baikorra eta konfiantzazkoa adieraziz. Pep bezalako pertsona eraldatzaileak behar ditugu, norberak egiten duena baino gehiago egitera motibatuko duten pertsonak behar ditugu gure artean, maila guztietan erreferenteak behar ditugu, norberetik hasita.

Argitaratzailea:

Ziurtagiriaren Elkartea

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 **Andoain** T. 943592148

1 Arsenal Plaza - 64100 **Baiona** T. 0559255041

Luzarra 10, 2-1 - 48014 **Bilbo** T. 902430026

Pedro Asua, 27 behe - 01008 **Gasteiz** T. 945215196

Martzelo Zelaieta, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa

31014 **Iruñea** T. 902430026

www.baieuskarari.org



@baieuskarari



www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria



www.baisarean.org

Zuzendaria:

Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:

Ziurtagiriaren Elkartea

Diseinua eta maketazioa:

BIT&MINA

Argazkiak:

Ziurtagiriaren Elkartea, Txintxarri, EMUN,

Eroski Taldea

Inprimatzailea:

Leitzaran

Banaketa:

Ziurtagiriaren Elkartea

Lege gordailua:

SS-497-2010

Aldizkari honetan publizitatea sartzeko idatzi info@baieuskarari.org helbidera edo deitu 943592148 telefono zenbakira.

HERRITAR ELEANITZAK HIZKUNTZA ANITZEKO EUROPAN

IV. Udaltop Udaletako euskara-zerbitzuen topaketak egin ziren martxoaren 22an eta 23an Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean. Aurten landu duten gaia honako hauxe izan da: **Nolakoa da gure (Udalaren) hizkuntza-politika? Begiratu, mesedez, euskara sailetik kanpo.**

Jardunaldiaren hasierako ekitaldiaren ostean, lehen hitzaldia Bernat Joan i Mari soziolinguista eta Filologia Katalanean doktoreak eskaini zuen **Autozentratzea eta hizkuntza politika: normalizazioa eta jarrerak** izenburupean.

Gaur egun, hizkuntza politikek erronka bikoitza dute Bernat Joan i Mariren esanetan. Batetik, herritarren gaitasun linguistikoak hobetzea, eta bestetik, hizkuntzen etorkizuna bermatzea. Horren aurrean ondoko galdera planteatu zuen: Nola lor dezakegu herritar eleanitzeko gizarte, hizkuntza guztiak mantentzeko erronkarekin kontraesanean sartu gabe?

Hizlariak gogoratu zuen Europak badauela bere helburu linguistikoa: hizkuntza aniztasuna mantentzea eta horretarako hizkuntza guztien etorkizuna mantentzea, gaur egun duten egoera dena delakoa izanik ere. “Estatuek babesten, sustatzen edota inposatzen dituzten hizkuntzek etorkizun ziurra dute.

Gainontzeko hizkuntzentzako, hau da, gutxiengo hizkuntzentzako bada erreminta bat, nahikoa ez bada ere, erabil daitekeena: Lurralde-hizkuntzen edo gutxiengo hizkuntzen Europako Karta”.

Europak jarritako helburuek diotenez, pertsona bakoitzak bere hizkuntza eta beste bi jakin beharko lituzke: “Horrek esan nahi du Euskal Herriaren edo Herrialde Katalanen moduko lurraldeetan, geure bi hizkuntza ditugunez, beste bi ere jakin beharko genituzkeela. Orotara, lau”.

Europako gizarte gehienak, ordea, helburu hori betetzetik oso urruti daude, eta Europa osoan, Hungariaren atzetik Espainia da egoera okerreduena duena: biztanleen % 50ek hizkuntza bakarra hitz egiten dute. Horiei euskal-, galego- eta katalan-hiztunak gehitu behar zaizkie. Bernat Joan i Mariren esanetan, hau da Espainiaren lehen arazo linguistikoa: gaztelania hitz egiten dutenen erdia baino gehiago elebakarrak direla: “Argi dago bi hizkuntza jakinda hizkuntza bakarra jakinda baino gaitasun gehiago gara daitezkeela, baina haratago joan behar dugu. Geure hizkuntza edo hizkuntzak hitz egiteaz gain, beste bi ere hitz egitea lortu behar dugu, horrela bakarrik sortuko baitira euren jardura hizkuntza askotan aurrera eramateko gai diren talde poliglota”.



Hizkuntza aniztasuna ere Europar Batasunaren helburuetako bat da, nahiz eta bertako instituzioek oraindik ez duten hori bermatzeko bitartekorik jarri.

Bernat Joan i Mariren aburuz, ekolin-
guistikak erakusten digu, zenbait espezie babesteko konpentsazio mekanismoak behar diren bezalaxe, hizkuntzen kasuan ere diskriminazio positiboa beharrezkoa dela, gutxiengo hizkuntzen etorkizuna bermatuko bada: “Konpentsazio mekanismoak beharrezkoak dira gure gizartearen kohesioa bultzatzeko, gure kultur ezagutza mantentzeko, mundua ulertzeko gure modua sortzeko eta etorkizuneko bi proiektu batera garatzeko: proiektu nazionala batetik, eta proiektu europarra bestetik”.



www.elhuyar aholkularitza.net
aholkularitza@elhuyar.com




ELHUYAR
aholkularitza

ELHUYAR Aholkularitza
eraldatzeko giltza



euskalaren
normalizazioa



erakunde eta gizonek
aukera berdintasuna



herritarren
parte-hartzea

BERBATEK PROIEKTUA: HIRU URTEZ EUSKARA TEKNOLOGIETAN IKERTZEN

BerbaTek hiru urterako (2009-2011) ikerketa estrategikoko proiektua izan da, Elhuyar Fundazioak, EHUKo Ixa eta Aholab ikerketa-taldeek, Vicomtech teknologia-zentroak eta Tecnalia Research & Innovation fundazioak gauzatua. Eusko Jaurlaritzako Industria eta Kultura sailek finantzatu dute BerbaTek proiektuaren aurrekontuaren zati bat.



BerbaTek proiektuaren helburu nagusia izan da hizkuntza-, ahots- eta multimedia-teknologiak garatzea, itzulpenaren, irakaskuntzaren eta edukien sektoreek osatzen duten hizkuntzen industriaren sektore ekonomikoaren euskarri teknologiko izateko, industria horrek teknologia aurreratuak behar baititu eskura ingurune globalizatu, interkonektatu eta eleaniztun honetan lehiakor izateko.

Hala, hizkuntza-teknologiak ikertzen eta garatzen jardun dute 2009 eta 2011 bitartean, hizkuntza-industrien alorrean erabilera praktikoa izango duten aplikazioetan indarra jarritz. Ikerketalanari erabilera praktikoa ematea, batik bat hizkuntza-industrien alorrean, izan da hasieratik ikertzaileen helburu nagusietariko bat. Eta, egindako ikerketalanaz gain, hiru demo garatu dituzte: zientzia eta teknologiako bilatzaile semantiko multimedia bat, dokumentalen bikoizketa automatikoko beste bat, eta hizkuntzen irakaskuntzarako tutore pertsonal bat.

Bilatzaile semantiko multimedia Elhuyarrek eta IXA Taldeak eraikitako zientzia eta teknologiako WNTerm ontologia espezializatua du oinarri; hau da, kontzeptuak semantikoki lotzen dituen sarea. Elhuyar Fundazioak sortutako edukien gainean egiten ditu bilaketak, eta, Tecnalia garatutako teknologiaren bidez, termino bat bilatzen denean, ontologian oinarritu eta termino horren sinonimoak, azpiklaseak eta superklaseak ere bila ditzake. Aldiz, emaitza irudi bat bada, antzeko irudiak ematen ditu, Vicomtech-IK4ren teknologian oinarrituta.

Filmak automatikoki bikoiztea oraingoz erronka zaila bada ere, bikoizketa automatikoaren demoak egoki egiten du lan, ezaugarri zehatzeko dokumentalekin: hizlari bakarra dagoenean eta ezpainen mugimenduarekin koordinatzea ezinbestekoa ez denean. Gaztelaniazko dokumental bat eta haren transkripzioa izanik, Vicomtech-IK4ren denbora-lerrokatze automatikoaren teknologiaren bidez, azpigitulu-fitxategi bat sortzen da. Gero,

IXA Taldearen Matxin itzultzaile automatikoak euskarara itzultzen ditu azpigitulu horiek, eta Aholab-en testu-ahots bihurketa-teknologiak euskarazko ahots sinkronizatua sortzen du. Demo horrek arrakastaz funtzionatu du Elhuyarren, Teknopolis telebista-saioko hizlari bakarreko atalekin.

Hizkuntzak irakasteko tutore pertsonalari dagokionez, emozioak adieraz ditzakeen 3Dko pertsonaia bat da, Vicomtech-IK4k garatutakoa. Euskaraz hitz egiten du, eta euskaraz esaten zaiona ulertzeko gai da, Aholab-en teknologiari esker. Horrela, IXAren teknologiaren bidez automatikoki sortutako gramatika-ariketak edo ulermen-ariketak egiten lagun diezaguke. Gainera, Aholab-en teknologia baliatuta, gure ahoskera ebaluatzen du. Azkenik, idazten ere lagun diezaguke (hiztegiak kontsultatzea ahalbidetzen du, hitzak nola deklinatzen diren eta zenbakiak nola idazten diren esan...), IXA eta Elhuyarren teknologiaren bidez.

IÑAKI ARRUTI

Lasarte-Oriako euskara zerbitzuko arduraduna

EUSKARAREN (VIII.) MARATOIOA

Parentesirik gabe esanda, “euskararen maratokia”, gure hizkuntza biziberritzeko Euskal Herrian egiten ari garen bidea izendatzeko balio dezake. Parentesian dagoena ere esanda, ordea, adiera orokor horrez gain, helburu bera duen eta “soilik” Lasarte-Orian bizi dugun “festa” baten esanahia ere badu.

Euskararen Maratokia lasarte-oriatar askok euskaldun izateko dugun nahia sinbolizatzen duen jai bat da. 1986an hasi eta lau urtez behin egiten, ospatzen, dugun jai bat. 40 ordu, etenik gabe, irauten duen jai bat. Eguneroko maratokia, benetakoa, elikatzen laguntzen digun jai.

Euskararen Maratokia larunbatean goizeko 8:00etan hasten da eta igandean gaueko 12:00etan amaitu. Bitartean, Maratokia, 5 minutu baino handiagoko isilunerik ezin izan dezakeen etengabeko mikrofono bat da. 40 orduak herriko plazan hezurmamitzen dira eta oholta zortzikote batek dinamizatzen du, umorea ardatz duten ekitaldiak berariaz prestatuz eta herritarrek prestatuta dituzten emankizunei bide emanez (parte hartze-ko baldintza da Lasarte-Orian jaio, bizi edo lan egitea).

Maratoiaren ardatza euskara da eta bere baliorik kuttunenetakoa, berriz, herriko euskaltzaleak, beren tira-bira ideologikoen gainetik, jaiaren inguruan biltzea. Maratokia da, korritu gabe, oso ongi esplikatu ezin daitekeen zerbait.

Euskararen Maratokia herrian euskara

berreskuratzeko egiten ari garen bidaia zail bezain polit honetako geltoki atsegina, besteak beste, festa polit bat izaten delako. Herritar gehienok pasa izan dugu ondo maratopian, eta hori gure memoria historikoan txertatzen doa.

Erakargarria, berriz, herritarrek erakartzeko indar berezi bat duelako. Erakarpen horrek hari-mutur asko izango ditu, baina ziur naiz badela bat bereziki indar handia duena. Hain zuzen ere, maratokiak duen filosofia hori, pentsaera desberdinak dauzkagun herritarrek parte izatera bultzatzeko oinarri hori. Euskaltzaleak elkar hartuta hasiz, euskaldunak elkarrengana biltzen jarraituz eta oraindik erdaldun direnak ere erakarriz.

Ezaugarri hori agian ez zen Euskararen Maratoiarekin jaioko, ez dakit. Lau urtez behin ezaugarri horiek aipatze soilarekin ere ez da ezaugarri hori errotuko. Baina, Euskararen Maratoiak lagundu digu balore sendo horiek gizarteratzen, transmititzen.

Euskararen Maratoiaren antolatzaile ofizialak Ttakun Kultur Elkartea eta Lasarte-Oriako Udala dira. Ttakunek dinamizatzen du Maratokia eta Udalak jartzen ditu baliabideak. Hala ere, Maratokia, bere printzipio nagusiei jarraituz, lasarte-oriatarrek egiten dute.

Beti izan da Maratoiaren helburua ahalik eta herritar gehienek parte-hartzea eta, horretarako, aparteko parte-hartzea



dute herriko elkarteek. Izan elkarte gastronomikoak (jan-edanak prestatuz), izan kirol-arlokoak (kirol probak prestatuz), izan musika eta kantuari lotutakoak (abesbatzak, musika-eskolak...), izan auzo-elkarteak, izan ikastetxeak, euskaltegiak... Izan, izan, Euskararen Maratokia, Lasarte-Oriako herritarrek gara.

Euskararen Maratokia izateko nahiak eragindako, agian erasandako, ideia zoro batetik sortu zen. “40 ordu baietz!” (baietz 40 ordu iraun, 5 minutu baino handiagoko isilunerik gabe, euskaraz hitz eginez herriko plazan!) erronka izan zuen leloa eta praktika ere bai. Geroztik, erronka izateari utzi dio eta gozamen-iturri bihurtu da. Gerora, “Eguneroko plazerra”, “Bero-bero” edo “Korritzeko modukoa” goiburuak jarri izan dizkiogu.

Nola ez, urte olinpikoetan izan ohi da gure maratoki hau ere. Beraz, aurten, urriaren 20an eta 21ean egingo dugu, ospatuko dugu “Bihotzetik plazara”.

www.euskararenmaratokia.com



Argazkiak: Eroski Taldea

AGUSTIN MARKAIDE

Eroski Taldeko presidentea

Laster beteko da urte eta erdi Agustín Markaidek Eroski Taldeko presidente kargua hartu zuenetik. Ez da berria etxean, hamar urte pasa baitzituen Zuzendari Orokor karguan Constan Dacostari erreleboa hartu aurretik. Krisi garaiak bete-betean harrapatu du, eta Eroskik fakturazioa gutxitu duen arren, “salmenta portaera ona” izaten ari dela dio eta pozik dago “merkatu-kuota irabazten” ari direlako. Etorkizunari begira, berriz, egoera ekonomikoren “zailtasuna onartu” eta beharrezkotzat jotzen du “eragile sozialak eta politikoak ados” jartzea eta gizarteari “mezu homogeneoak” helaraztea.

Krisia eta krisiaren eragina bazter guztietan antzematen da. Nola kudeatzen da Eroski bezalako talde bat krisi garaian?

Une honetan gure arreta denda lehiako-rragoak eta erakargarriagoak eraikitzea da; denda bihurtu baita Eroskiren lehenetasun nagusia. Bezeroari erosketak erraztuko dizkion dendak nahi ditugu; komunikazio egokiarekin, produktuen antolamendu intuitibo eta eskuragarriarekin...

Era berean, nahi duguna da kontsumitzaileei aurrezten laguntzea, arreta berezia jasotzea gure dendetan eta erosketasaskia bere osasuna zaintzen duten, eta, aldi berean, ingurumena errespetatzen duten produktuekin betetzea.

Illo horretan, Eroski sarearen berrantolaketa hurbileko supermerkatuetan ari da oinarritzen (horiek dira portaerarik onena izaten ari diren dendak), eta, bestetik, hipermerkatuetan denda pilotu berriak ari gara probatzen, formatu berriarekin: haurtxoak, norberaren zaintza, eta frutategia eta xarkuteria.

Halakoetan, nola uztartzen da negozioa aurrera atera behar izatea familia askok eta askok bizi duten egoera ekonomiko larriarekin?

Garai hauetan bezeroak dendarekiko duen leialtasuna jaitsi egiten da. Bezeroak probatu, begiratu eta konparatu egiten du, eta, ondorioz, bere portaera

aldatu: lehen baino askoz ere arrazionalagoa da orain. Eroskin egiaztatu dugunez, bezeroak lehen baino askoz gehiago erreakzionatzen du berrikuntzen aurrean, eta, beraz, berebizikoa da inoiz baino dinamikoagoak izatea.

Halere, krisia bizitzeko era asko dauden bezala, kontsumitzaile-profil desberdin asko daude. Orain, askoz gehiago dira banatzailearen marka probatzea axola ez zaienak; eta, gustatzen bazaie, beren erosketa-saskian sartzten dute, balioa galtzen ari direnik pentsatu gabe. Baina badira beste batzuk, balio erantsiaren aldeko apustua egiten jarraitzen dutenak, fabrikatzailearen marka barne har-

“Eroskik egin duen ibilbidean beti argi izan du ezinbestekoa zela tokian tokiko hizkuntzarekiko konpromisoa adieraztea”

tuz. Gure apaletan berdin-berdin aurki daitezke bi marka horiek.

Gainera, marka propioa gama bat doitu, irudia aldatu eta komunikazioa hobetu dugu; Basic izena jarri diogu, produktu-mota horrekin identifikatzen errazagoa izan dadin. Eroski Basic gamaren merkaturatze berria erabateko arrakasta izan da guretzat, gamarik salduena izan baita: gure bezeroek erosten dituzten bost elikagaitik bat Eroski Basic markakoa da.

Krisiari aurre egiteko gobernua hartzen ari diren neurriak egokiak direla uste duzu?

Gaur egungoa bezalako merkaturako eredu ekonomiko batean, gobernu baten jarduteko moduak, enpresa baten jarduteko moduak bezalaxe, ‘merkatuaren’ onarpenaren muga du, eta onarpen hori ekonomiaren etorkizunari buruz sor dezakeen sinesgarritasunaren baitan dago neurri handi batean.

Hori dela-eta, gastuak murrizteko eta zergen bidez sarrerak handitzeko neurriak beharrezkoak dira aurrekontuak orekatzeko, baina ez dira inoiz nahikoak izango, ez bada lortzen ekonomia hazteko gaitasuna izatea. Merkatuek etorkizunari buruz duten sinesgarritasuna ez da hobetuko. Enpresetan gertatzen den bezala, herrialde baten zorpetzea handia edo txikia den jakiteko haren gaitasun ekonomikoarekin erlazionatu behar da nahitaez.

Hori horrela, egungo neurriek arazoaren lehen parteari soilik ekiten diote,

baina aldi berean bigarrena okerrago tzen ari dira.

Zer proposatzen duzu?

Eragile ekonomiko guztiok daukagu, gobernuak barne, aurrezten jarraitzeko betebeharra. Gobernuak zerga, tasa eta gastu-murrizketaren bidez aurreztuko dute, baina neurri horietako bakar bat ere ez da nahikoa izango ekonomiari energia gehitzeko.

“Gastuak murriztea eta zergen bidez sarrerak handitzea beharrezkoak dira aurrekontuak orekatzeko, baina ez dira inoiz nahikoak izango ekonomia hazteko gaitasuna izatea lortzen ez bada”

Bestalde, erosteko ahalmena galtzen jarraituko dute familiek, eta ez dirudi langabeziak behera egingo duenik. Beraz, ez dago berriz ere konfiantza izateko zantzu handirik. Etorkizun ekonomia dagokionez optimistak izango gara lider politikoak lankidetzan hasten direnean. Zentzu horretan, uste dut klase politikoak baduela zer ikasia kooperatiben eredutik. Elkartu egiten gara arazoa konpontzeko, diagnostikorik edo ekintza-planik onena nork duen erakusteko borrokan ibili beharrean.

Horrenbestez beharrezkotzat jotzen dugu eragile sozialak eta politikoak adostasun zabaletara iristea, abiapuntu gisa egoera ekonomikoaren zailtasuna onartuz, baina gizarteari eta ‘merkatuak’ deiturikoei mezu homogeenagoak eta

ez hain kontraesankorrak helaraztea ahalbidetuz betiere.

Merkatuan dagoen lehia gogorrean, nola kokatzen da Eroski? Zein da bere helburuko publikoa eta zein balio erantsi ditu?

Nire ustez, merkatuak oraindik hazkunde-aukera ugari eskaintzen ditu, eta are gehiago gure indarguneei etekina ateratzeko gai bagara. Izan ere familien % 10 baino gehiago pasatzen baitira egunero gure dendetatik.

Gure jarduketak kontsumitzaileei zerbitzurik onena ematera bideratuta daude, kalitatearen kudeaketatik hasi eta prezio-proposamen onenak egiteraino. Gainera eskualdeko produktuen eskaintza indartu nahi dugu eta kontsumitzaileei balio bereizgarri bat emango dieten produktuak bultzatu, hobekuntza garrantzitsuen bidez, hala nola: nutrizio-etiketatuak, trans-koipe artifizialak kentzea eta osasunarentzat kaltegarriak diren gatz, azukre eta koipeak murriztea. Era berean, kontsumitzaileei informazioa eta prestakuntza eskaintzeko jarduerak sustatuko ditugu, eta gure dendak bezeroek eskatutako zerbitzu, eskaintza, kalitate, aukera eta produktuetara egokituko ditugu.

“Jarduerak kontsumitzaileei zerbitzurik onena ematera bideratuta daude, kalitatearen kudeaketatik hasi eta prezio-proposamen onenak egiteraino”

Eroski MCCko kide da. Kooperatibaren izpiritua gordetzen al du? Eta zertan antzematen da izpiritu hori?

Kooperatibak balioak dituzten enpresak dira. Hori ez da aldatu lehen kooperatibak orain dela 100 urte baino gehiago sortu zirenetik eta erabat eutsi zaio asmo horri, baita Mondragonen ere, nola ez.

Balio horiek gure izaeraren parte dira eta egunero erabiltzen dira: kudeaketa demokratikoa pertsona bakoitzari boto bat emateko eskubidea eskainita, bazkide-langileak enpresen jabe izatea, solidaritatea eta mutualismoa kooperatiba bakoitzaren barruan eta kooperatiben artean...

Eta baita gizartearekiko solidaritatea ere, izan ere kooperatibek urtero eskaintzen baitute beren irabazien zati bat

gizartearentzat eta gure jatorriko lurraldean enplegua babesteko, sortutako aberastasuna bazkideen artean berdintasun handiagoz banatzeak duen eraginaz gainera.

Egia da gauza horiez gutxi hitz egiten dugula, baina guretzat arnasa hartzea bezain naturalak eta beharrezkoak dira.

Gaiaz aldatuz, eta hizkuntzen eremura ekarri, Eroskin hizkuntza ugari kudeatzen dituzue. Zergatik hartu zenuten irizpide hori?

EROSKIk hizkuntzenganako konpromiso sendoa erakutsi du sortu zenetik. Kooperatibako fundazio-aktan bertan jasota dago euskararen koofizialtasuna Kooperatibaren eremuan. Duela 43 urte hori jaso zenetik, Eroskik egin duen ibilbidean eta hedapenean beti argi izan du ezinbestekoa zela tokian

tokiko hizkuntzarekiko konpromisoa. Bezeroei arreta eta zerbitzua beren hizkuntzan emateak balio erantsia ematen dio kooperatibari eta gure printzipio eta balore kooperatiboekin erabat lotuta dago hori.

“Bezeroei arreta eta zerbitzua beren hizkuntzan emateak balio erantsia ematen dio kooperatibari”

(fr)

Pour dépasser la crise, la classe politique devrait prendre modèle sur les coopératives

Cela fera bientôt un an et demi qu'Augustin Markaide occupe la place de président du groupe Eroski. Il n'est pas nouveau dans la maison, en effet, après dix années passées en tant que directeur général, il prend la relève de Constan Dacosta. Arrivé à cette nouvelle fonction en pleine période de crise, il affirme quand même que les ventes se portent bien. En ce qui concerne l'avenir, il faut selon lui accepter cette situation économique délicate, et il est nécessaire que les acteurs sociaux et les politiques se mettent d'accord et puissent diffuser des messages homogènes.

Depuis sa création le Groupe Eroski a montré un engagement réel au niveau de sa politique linguistique, et aujourd'hui elle entremêle quatre langues officielles (l'euskara, le castillan, le galicien et le catalan). Pour A. Markaide il est fondamental “de prendre localement des engagements pour les langues locales”. Selon ses dires “cela donne une valeur ajoutée à la coopérative”. Pour le groupe, ce plan de développement de l'euskara a trois objectifs clairs: intensifier l'utilisation de l'euskara, aboutir à un paysage linguistique entièrement bilingue et enfin se démarquer de ses concurrents.



Gure lurraldean euskararen kudeaketari lotutako bi ziurtagiriren jabe da Eroski. Zergatik hartu du erabaki hori?

Euskara Kudeaketa Planaren parte izatera pasatzeak berebiziko garrantzia du eta ziurtagiri hauek gure euskararen erabileran areagotzen jarraitzeko ikasbide kualifikatu bat izaten laguntzen digute, kanpoko adituen eskutik.

Bai Euskarari Ziurtagiria aitzindari da lan mundua euskalduntzen eta denon ekarpenez etengabe hobetzen ari da eta horrek entitate guztioi aurrera begira hobetzen laguntzen digu. Bikain berriz, Eusko Jaurlaritzak ematen duen ziurtagiria da. Zehaztasunez elementu desberdinak lantzen eta kudeatzen laguntzen duen tresna eskaintzen du

Kooperatibarentzat hizkuntza kudeaketa egoki bat edukitzea giltzarrietako bat da kalitatearen eta berrikuntzaren helburuak lortzeko. Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzek, gure hizkuntza kudeaketan hobetzen laguntzen digu, gure hizkuntza egoera ezagutuz eta gure euskara planaren helburuak garatzeko giltzarriak ematen dizkigu, aurrera begirako pausoak ezartzeko baliabide ezinbestekoa da EROSKIrentzat.

Bestalde, EROSKI euskararekiko duen konpromisoa eta egiten duen lana gizar-tearen nahiz barruko bazkideen aurrean aditzera emateko aukera ematen dio Bai Euskarari Ziurtagiriak.

Euskara erabiltzeak zein onura ekarri dizkio Eroskiri?

Ez da erraza euskara erabiltzearen edo gaztelania erabiltzearen abantailak deskribatzea. Ezinbestekoa da gu geu izateko, bertakoa den eta bertakoa sentitzen den enpresa bat izateko. Egia esan, normalean ez da galdetzen zein diren norberaren hizkuntza hitz egitearen abantailak. Eta, hori gutxi balitz, merkatari on bat izateko ezinbestekoa da bezeroaren hizkuntza hitz egitea.

Gure Euskara Planaren funtseko helburuak 3 dira: euskararen erabilera areagotzea EROSKI Kooperatiba Elkartean, barne eta kanpo paisaia soziolinguistiko elebiduna lortzea, eta horretan aitzindaria izatea, eta lehiakideen aldean nabarmentzea.

Kooperatibak garbi izan du beti bertako identitatea suspertu behar duela. Enpresa baten jarduera ez da mozkinetara begira soilik antolatu behar. Baina arrazoi komertzial taxuzkoak ere badaude bertako hizkuntza kontuan izateko.

“Gure Euskara planak hiru helburu ditu: euskararen erabilera areagotzea, barne eta kanpo paisaia elebiduna lortzea eta lehiakideen aldean nabarmentzea”

(es)



Para hacer frente a la crisis económica la clase política tiene mucho que aprender del modelo de las cooperativas

Pronto se cumplirá un año desde que Agustín Markaide accedió al cargo de presidente del Grupo Eroski. Después de haber ejercido durante diez años el cargo de Director General tomó el relevo de Constan Dacosta. Le está tocando vivir la crisis económica en su plenitud y aunque Eroski haya disminuido la facturación, el presidente afirma que “el comportamiento de ventas está siendo bueno” y que “están ganando cuota de mercado”. En relación al futuro, cree que es necesario aceptar las “dificultades que supone la actual situación económica” para que “los representantes sociales y políticos lleguen a un acuerdo” y transmitan a la ciudadanía “un mensaje homogéneo”.

El Grupo Eroski ha mostrado desde su creación un gran compromiso frente a las diferentes lenguas de cada territorio. En palabras de Markaide, este hecho hace que “Eroski tenga un valor añadido”. En estos momentos, el plan de euskera del Grupo Eroski tiene un objetivo triple: aumentar la utilización del euskera, conseguir que el paisaje lingüístico sea bilingüe y destacar frente a los competidores.

KONPROMISOZ, AURRERA

Leitzaldeko euskara teknikaria da David Anaut. Kristina Urrutia, Malerreka eskualdean jardun da Ziurtagiriaren sustapen eta ebaluazio lanetan. Nafarroako Iparraldeko mankomunitateetan Bai Euskarari Ziurtagiriaren ekimenak orain arte eman duenaz eta aurrera begira eman beharreko urratsez jardun gara.

Ziurtagiriaren ekimenak Nafarroa Iparraldean orain arte izan duen ibilbideaz galdetuta, baikor agertu da Anaut. Euskararen erabileran eta normalizazioan eboluzio ikaragarria izan dela dio, eta balantze ona egiten du hasierako helburuak bete direlako. Bere hitzetan, “Leitzaldean, esaterako, zortzi urtetako ibilbide oparoa izan du Bai Euskarari Ziurtagiriaren ekimenak. Atzera begira jarrita, esan dezakegu, urrats konkreтуak, ikusgarriak ematea ahalbidetu duen tresna izan dela Ziurtagiria”.

Bai Euskarari Ziurtagiriak Nafarroa Iparraldean asko lagundu duela esaterakoan ados agertu dira biak. Uneotan Nafarroa Iparraldean orotara 265 entitatek daukate Ziurtagiria. Malerrekan 2010ean hasi ziren proiektuarekin, ikusi baitzen inguruko gainontzeko eskualde guztietan abian zen Ziurtagiriaren ekimenari heldu behar zitzaiola. “Eskualdea euskalduna da izatez, baina erabilerari dagokionez, ohitura handia dago erdaraz egiteko”, azaldu du Urrutiak.

“Hasi geroztik, ziurtagiridun mordo xka lortu da. Urrats asko eman dira; euskara txertatzeko lan asko egin dute enti-



tateok. Jendeak harro erakusten ditu egindako aurrerapausoak.” Urrutiak azaldu du, iazko ebaluazio lanetan argi eta garbi antzeman zuela, hizkuntzaren erabilerari dagokionez ere, jendeak ohiturak aldatu dituela.

Hasiera-hasieratik, establezimendu gehien jarrera oso baikorra izan dela azpimarratu nahi izan du Urrutiak.

DAVID ANAUT:
“Bai Euskarari Ziurtagiria motibazioa indartzeko tresna baliagarria da. Urrats batzuk egin behar direla ikustetik, egitera pasatzeko balio du”



OOH! PARI TXARTELA

Zenbatekoa zeure esku. 15 eurotik hasita
Gastatu saldoa zeure erritmora
Gastua informazio gunetan kontrolatu

ekar



Egindakoarekin gustura, epe motzera aurrerapauso gehiago etorriko direla, ziur da Urrutia: "Oraingo, ibilbide laburra egin dugu eta indarrez eta ilusioz gabiltza Malerrekan. Zer egina badago, baina goranzko joeran gabiltza nabarmen".

Konpromisoa da gakoa. Leitzaldeko teknikariaren esanetan "Ziurtagiriak badu norberarekiko konpromiso osagai handi bat: bai euskararekin, baina baita norbere buruarekin ere. Ziurtagiria baliagarria da horri eusteko: urtero egiten den gogoetak, urteroko lana dakar." Horrez gain, Urrutiak erantsi du Ziurtagiriak ematen diela entitateei bestelako balio bat ere: "Bezeroak erakartzeko balio du, zalantzarik gabe".

Baina konpromiso hori indartzeko unea iritsi dela iruditzen zaie biei. Izan ere, egungo errealitateak, horretan laguntzen dutela uste dute. Entitate askotan, gazteak sartu diren taldeetan, aipatu dute antzematen dela beste kultura bat. Bien ustez, gazteek grina handiago erakusten dute euskarekiko. Naturalki ateratzen zaie, gainera. Neurri bereko garrantzia ematen die teknologia berrietan euskara txertatzeari ere: "Haurrak ohitzen badira euskarazko softwareak erabiltzera, etorkizunean asko dugu irabazteko".

Urrats berriak eman daitezten, gezia euskaltzaleengana bideratu du Anautek:

"Askotan badira esfortzu asko eskatzen ez duten kontuak izan arren, zaintzen ez direnak. Hartu ditzagun bi segundo halako kontuez hausnartzeko, eta ohiturak aldatzea hain zaila ez zaila egingo ziur nago. Ba al dakigu nominak euskaraz ditugun edo ez? Edota, software-ak euskaraz izatea... Pare bat segundo hartu behar dira, ez gehiago: bi kilok diral!". Bada zer hobetua euskaltzaleen aldetik.

Hemendik aurrera eman beharreko urratsei buruz galdetuta, akuilu lana ezinbestekoa izango dela iruditzen zaie Anaut eta Urrutiari. Eutsi behar zaio motibazioari, eta egindako lanaren tentsioa mantendu behar da. Mezu argia du Anautek oraindik ere ziurtagiridun ez diren entitateentzat: "Esango nieke, beren motibazioari eusteko eta indartzeko tresna erabilgarria dela. Urrats batzuk egin behar direla ikustetik, egitera pasatzen

da." Teknikariaren aburuz, Ziurtagiririk ez balego, euskararen normalizazioa asko motelduko litzateke Nafarroa Iparraldeko eskualdeetan.

Etorkizunari begira, baikor agertu da Kristina Urrutia. Bidean zailtasunak izango direla jakin badakien arren, argi dauka aurrerapausoak nondik etorriko diren. Zeintzuk izan behar dute hemendik aurrerako urratsak? "Epe motzera, ditugun ziurtagiridun entitateei eutsi, eta sustapen lanaren bitartez berriak ere lortu beharko genituzke. Koiuntura ekonomikoa kontuan hartuta, zaila izan daiteke ziurtagiridun entitate gehiago lortzea, baina badugu zer egina: bezeroengan eragin behar da. Aukerak badaude, oinarria eta indarra ere bai".

KRISTINA URRUTIA:
"Ziurtagiridun entitateak gehitzen saiatzeaz gain, bezeroengan eragin behar dugu. Aukera badaude, oinarri eta indarrak ere bai"



TALLERES
MITXELENA, S.COOP.

Eziago poligonoa, 21^a Hernani, Gipuzkoa
Tel.: 943 552 512 / 552 516 Fax: 943 552 816
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

ZEIN HIZKUNTZA IRIZPIDE ERABILI SAREAN?

EMUNek enpresek sare sozialetan zein hizkuntza eta zein irizpiderekin erabili behar dituzten aztertzeko ikerketa proiektu bat burutu du hainbat aditurren aholkuak, hausnarketak eta iritziak bilduz eta sarean argitaratuz “Enpresa, sarea eta hizkuntzak” izenburupean.



Gaur egun, enpresa eta erakunde askoren komunikazio-kanal bihurtu dira sare sozialak. Enpresa eta erakunde hauek bere bezeroen hizkuntza aintzat hartu behar dute eta baliteke, gainera, beste komunikazio kanal batzuetarako hizkuntza irizpideak zehaztuta edukitzea. Baina, nola jokatu behar dute sare sozialetan? Zein izan daiteke estrategia linguistikoko egokiena? Galdera horien inguruan EMUNek hainbat aditurren ekarpenak jaso ditu, eta horien artean dago Rober Gutiérrez Ziurtagiriaren Elkartearen zuzendaria ere.

Hizkuntza batean baino gehiagotan aritu behar duen enpresaren kasuan, kontu bakarra ala bi erabiltzea komeni den galdetuta, Joxe Rojasek (Topagunea) dio faktore asko hartu behar direla kontuan eta horien arabera izango dela egokiagoa erantzun bat ala bestea. Kasu guztietan, ordea, Rojasek ustez, erakunde batek sare sozialetan sartu aurretik zituen hizkuntza irizpideekin bat etorri behar du erakunde horren sare sozialetako jardunak. Edonola ere, oro har, Rojasek kontu

bakarraren alde egingo luke eta euskara soilik erabiliko luke ahal den guztietan: “Gainerakoan, mezuak lehendabizi euskaraz sartuko ditugu. Kontu ezberdinak behar izanez gero, eman lehentasuna euskarazkoari eta lehentasun hori modu grafikoan islatu”.

Burutü komunikazio eta publizitate agentziako kide Josu Bergararen ustez, sarea sozialetan aritzerakoan, nolako marka, halako hizkuntza erabili behar da. Bergararen esanetan, enpresak argi izan behar du bere marka non, noiz, nola eta nori komunikatu behar dion, eta horren arabera erabakiko du sare sozialetan egon edo ez, eta zein hizkuntza mota erabili: “Hizkuntza bat edo beste erabiltzea zure markaren publikoaren arabera erabaki beharko duzu”. Sare sozialetan profilak edo orrialdeak sortzen ditugunean badakigu zeinentzat bideratuko dugun, eta horren arabera erabakiko dugu hizkuntza bat edo beste erabili.

Adibide zehatzetara joz, Joxe Aranzabal

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko komunikazio arduradunak MU Telebistaren kasua azaldu du. Hizkuntzei dagokiernez, MU Telebistak Mondragon Unibertsitatearen hizkuntza politika betetzen du; telebistan euskara da hizkuntza nagusia, eta gehienetan, aurkezpenak eta iradokizunak euskaraz daude eginak eta azpigituluak gaztelaniaz eta ingelesez. Baina norbaitek beste horietako hizkuntza batean hitz egiten duenean, orduan azpigituluak beste hizkuntza bietan jartzen dira: “Hala, edozeinek onartzeko moduko formula sortu nahi izan da”.

Erakunde baten hizkuntza erabileran Community Managerrak (CM) duen garrantziaren gainean, Usoa Agirre Goienako Telematika Saileko langileak eta bertako CMak, Joxe Rojasek hariari jarraiki, uste du CMak jakin beharko duela zein hizkuntza irizpide dituen enpresak eta irizpide horien arabera jardun beharko duela Interneten ere. “Enpresan edo erakundean euskaraz komunikatzea baldin badago lehenetsita, hizkuntza horretan hasiko ditugu elkarrizketak komunitateetan ere. Komunitate kudeatzailea enpresaren ahotsa da komunitatearen aurrean. Ez dira gutxietsi behar euskaraz ez dakiten bezeroak edo gure markaren inguruko komunitateetako kideak. Beti adi egon behar da zer dioten guri buruz eta kexaren bat baldin badago hizkuntzaren inguruan enpresaren baloreak ondo azaldu”.



Erronketan aurrera egiten laguntzeko gaude.

Euskararen planen bidez hizkuntzak eraginkortasunez kudeatzen dituen talde profesionala gara.

- HIZKUNTZA AHOLKULARITZA
- EUSKARA PLANAK (enpresa, administrazio eta bestelakoetan)
- EUSKARA PRESTAKUNTZAKO MODULU BEREZIAK
- ITZULPEN ZERBITZUAK



www.emun.com
www.lantalana.com

SAREAN EUSKARAZ ARITZEKO GOMENDIOAK

Zein hizkuntzatan aritu behar du produktu edo zerbitzuren bat eskaini nahi didan enpresak? Galdera horri erantzuteko helburuarekin Bai Euskarari Ziurtagiria duen edo eskuratu nahi duen enpresa batek alor horretan bete beharko lituzkeen hainbat irizpide proposatu ditu Bai Euskarari Ziurtagiriaren zuzendari Rober Gutiérrezek. “Zerbitzua Euskaraz’ edo ‘Zerbitzua eta Lana Euskaraz’ maila lortu nahi duen enpresak euskaraz aritu beharko du sare sozialetan ere, informazioa euskaraz zabaldu beharko du”. Gutiérrezen esanetan, hizkuntzak hautatzeko garaian hiru faktorek eragiten dute nagusiki: legediak, merkatu-irizpideek eta erantzukizun sozialak. Azken horri dagokionez, enpresek erantzukizunez jokatzek esan nahi du, sarean ere euskaraz aritzeko bitartekoak jarri behar dituztela. “Enpresak konturatu behar dira hizkuntzaren aldagaia ‘balia’ dezaketela merkatuan abantaila lortzeko, kontsumitzaile eta erabiltzaileontzat produktuak eta zerbitzuak erakargarriagoak baitira gure hizkuntzan eskainiz gero”.

Zerbitzuak euskaraz eskaini eta lana euskaraz egitera iritsi nahi duen organizazioarentzat hainbat gomendio eman ditu Rober Guti rrezek:

- Jarioa euskaraz bermatzea.
- Beste hizkuntzak erabili behar badira, egin euskaraz lehen-dabizi eta elkarrizketarako edo eztabaidarako tarteak utzi ondoren, erdaraz.
- Beste horrenbeste mezuak elkarren segidan zabaltu nahi izanez gero: euskaraz lehendabizi; ondoren, erdaraz. Google+ bezalako sareek aukera ematen dute publikoak hizkuntzaren arabera bereizteko.
- Ahal dela, ez egin itzulpenik hizkuntza bat baino gehiago erabili nahi izanez gero.
- Elkarrizketa erdaraz hasten duenari iradoki behar zaio euskaraz jarrai dezakeela.

Aukera izanez gero, aplikazioen euskarazko bertsioak erabili.

(es)

¿Cuáles son los criterios lingüísticos que hay que tener en cuenta a la hora de utilizar la Red?

La empresa EMUN ha desarrollado un proyecto de investigación para analizar en base a qué criterios lingüísticos hay que funcionar en la Red. Para la elaboración del proyecto, EMUN ha recogido las recomendaciones, reflexiones y opiniones de varios expertos y los ha publicado en la Red bajo el título “Enpresa, sarea eta hizkuntzak”. Entre otros, hay que destacar las aportaciones de Joxe Aranzabal, responsable de comunicación de la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de la Universidad de Mondragón; Usoa Agirre, Community Manager de Goiena; y Rober Gutiérrez, director del Certificado Bai Euskarari; o de los expertos de la Red Joxe Rojas y Josu Bergara.

En rasgos generales, todos coinciden a la hora de subrayar que los criterios lingüísticos utilizados en la Red tienen que ser coherentes con los criterios lingüísticos de esa organización antes de comenzar su actividad en Internet.

(fr)

Quels criteres linguistiques utilises sur la toile

L'entreprise EMUN a mis au point un projet d'étude afin d'avoir une vision claire des choix linguistiques et des critères retenus par les entreprises pour communiquer sur la toile. Nommé "Enpresa, sareta eta hizkuntzak" (Entreprises, toile et langues) la mise au point de celui-ci a été enrichi grâce aux avis, conseils et réflexions de spécialistes: le responsable de la communication de la Faculté des Sciences Humaines de Mondragón, Joxe Aranzabal, Usua Aguirre de Goiena Community Manager, Rober Gutierrez directeur de l'association du Label Bai Euskarari, Joxe Rojas ainsi que Josu Bergara ont apporté leur aide.

Tous sont d'accord que l'activité du réseau social doit être en accord avec les choix linguistiques de l'entité qui souhaite y entrer.

ZIURTAGIRI BERRI GEHIAGO

2012 hasi zenetik Bai Euskarari Ziurtagirien kopuruak goraka jarraitzen du. Hainbat entitatek eskuratu dute Ziurtagiria eta horien artean dira Jolastuz Jokatu Kultur Elkarteak, BPXport Kirol Zerbitzuak, Aurrez Aholkularitza edota Gasteizko Jimmy Jazz areto ezaguna.

Jolastuz Jokatu Kultur Elkarteak eta Amurrioko Gazte Asanbladak Bai Euskarari Ziurtagiriaren “Zerbitzua eta Lana Euskaraz” maila eskuratu dute. Lehenak kirolaren bidez pertsonen prestakuntzan eta garapenean espezializatutako kultur elkarteak dira. Esperientzia eta ezagutza handiko lan-taldeak osatzen du taldea eta zerbitzu profesionala bermatzen dute; betiere, erakundea bakoitzaren beharretara, estilora eta nortasunera egokituta. Amurrioko Gazte Asanblada berriz, hainbat gazte orain dela lau urte osatutako kolektiboa da. Amurrioren kultura eta aisialdi alternatiboak sortzeko, etxebizitza eskubidea defendatzeko, lan prekarietatea salatzeko, hizkuntza eskubideak bermatzeko eta beste hainbat gaien alde lanean diahardute.

Bestetik, BPXport Kirol Zerbitzuak enpresak eta Aurrez Aholkularitzak “Zerbitzua Euskaraz” maila eskuratu dute. Izenak berak dioen bezala, kirol zerbitzuen kudeaketan eta antolakuntzan lan egiten du BPXportek eta Gipuzkoan eta Nafarroan hainbat kiroldegi kudeatzen

ditu. Kiroldegi horietan entrenamendu pertsonalizatuen planifikazioa eta osasunari lotutako arlo ezberdinen aholkularitza zerbitzuak ere eskaintzen ditu. Zarauzko Aurrez Aholkularitzak elikagai enpresei zuzenduriko aholkularitza eta prestakuntza espezializatua eskaintzen ditu. Zehazki elikagaien segurtasuna, kalitatea, ingurumena eta produktu berrien garapenari buruzko arloak jorratzen ditu eta gai hauei buruzko informazioa eta prestakuntza eskaini.

Azkenik, Gasteizko Jimmy Jazz areto ezagunak musika eta ikuskizunaren arloan egiten du lan eta euskararen aldeko apustu tinkoa egingo du. Horren erakusle da eskuratu berri duen Bai Euskarari Ziurtagiria: “Bidean” maila.

Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu duten beste entitate batzuk: Bizibike bizikletadenda, Hitz liburu-denda, Fideslan aholkularitza, Hirudart 3D infografia, errealitate birtual eta multimedia teknologiako enpresa, Mugarra triatloi Kirol Elkarteak, Villar erloju-denda eta Zergatik arropa denda.



bidera
zerbitzuak

Banaketa-Komunikazioa
Itzulpenak-Aholkularitza
Publizitatea-Dei zentroa



berria
taldea

BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAREN EKITALDI NAGUSIA EKAINAREN 18AN IZANGO DA EUSKALDUNA JAUREGIAN

Ziurtagiriaren Elkartek urteroko ekitaldi nagusia ospatuko du ekainaren 18an, 19:00etan hasita, Bilboko Euskalduna Jauregian. Aurten hirugarren aldiz Bai Euskarari Sariak banatuko dira. Bere bitartez Bai Euskarari Ziurtagiria duten entitateetatik euskara euren organizazioan txertatzeagatik gehien nabarmendu diren bi enpresa sarituko ditu Ziurtagiriaren Elkartek. Horrez gain, euskararen normalizazioaren alde egingako lanagatik Bai Euskarari Laguna oroigarria ere emango zaio pertsona bati, bere urteetako ibilbidea saritzeko.

Dena den, ekitaldiko benetako protagonista Bai Euskarari Ziurtagiria daukaten entitateak izango dira. Euskararen normalizazioan aurrera egiteko hartu duten erantzukizuna aitortu eta eskertu nahi zaie entitate horiei. Horrexegatik, ekitaldia berezia izango da: parte-hartzailea eta sorpresaz betea.



Ekitaldira joan nahiko bazenu, jakinarazi mesedez info@baieuskarari.org helbidera e-posta bidaliz, edo 943 592148 telefonora deituz.

BIZKAIAIAN BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA IRMOTZEN

Azken hilabeteotan, "Urrats Biziak Bizkaian" lelopean Ziurtagiriaren Elkartea Bai Euskarari Ziurtagiria Bizkaian hedatzeko kanpaina burutzen ari da. Ziurtagiriaren Elkartek 2012. urterako zehaztu dituen erronken artean, lehentasunezkoa da Bai Euskarari Ziurtagiria Bizkaian zabaltzea. Gaur egun 1.500 entitate inguruk daukate Ziurtagiria; horietatik 203 (% 14) dira Bizkaikoak.

Bai Euskarari Ziurtagiria duten enpresen artean hurrengoak aipa daitezke: Arlan S.A., Athletic Club Bilbao, Azti Technalia, Bankoa, Bengozarra Eraikuntza Metalikoak, CEGASA, Durangoko Maristak, Energiaren Euskal Erakundea, Eroski, Fremap,

Inforlur, S.A.U. azpiegiturak, Iurreta Institutua, Izagirre S.A. Eraikuntza Metalikoak, JEZ Sistemas Ferroviarios, Leioa Berri Auto (Renault), Refractarios Kelsen (Grupo Calcinor), Talleres Gometegui, Telvent, ULMA, VUSA, eta abar.

Bizkaiko hedapen kanpaina otsailean hasi zen. Orduz geroztik hainbat entitate berrik eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria eta kanpainak martxan jarraituko du urte amaierara arte. Hortaz, hilabeteotan Ziurtagiriaren Elkarteko kideak Bizkaiko hainbat herri eta mankomunitateetako entitateak bisitatzen ari dira.



Leitzaran Grafika, S.L.
Martin Ugolaite Kultur Parkea
20140 Andoain (Gipuzkoa)
tel: 943 303510 - fax: 943 393067



- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Inprimakiak



- Aurreinprimaketa
- Inprimaketa
- Koadernaketa
- Prozesu integrala



urrats biziak



@baieuskarari



www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria



www.baisarean.org

ziurtagiriaren **elkartea**



baieuskarari.org